

GAP

SARIEN ZOZKETAREN OINARRIAK

“SARE BERDEAK”

2024ko azaroaren 20tik 2024ko abenduaren 11ra



**GLOBAL
ACTION
PLAN**



SARE BERDEAK



1. Nola parte hartu

Sare Berdeak-en zozketan parte hartzeko, hau da egin beharreko gauza bakarra:

- a) Sare Berdeak webgunean izena ematea: <https://www.sareberdeak.eus/eu/parte-hartu/>
- b) Sare Berdeak-en Instagrameko kontua jarraitu https://www.instagram.com/sare_berdeak/ eta zozketari buruz egin dugun argitalpenari «atsegin dut» eman eta galderari erantzutea. Sare sozialik izan ezean, erantzuna posta elektronikoz bidaliko da kaixo@sareberdeak.eus helbidera.

Sare Berdeak proiektua GAPek (Plan de Acción Global para la Tierra. Erregistro zenbakia 161.132, NIF G-81565228, eta helbidea Olavide Plaza 5, 28010, Madrid. Helbide elektronikoa: info@programagap.org) sustatu eta kudeatzen du. Gogoan izan sariak irabazteko goian adierazitako urratsak jarraitu behar direla.

2. Webgunean erregistratzea

Zure datu pertsonalak Sare Berdeak-eko web-orrialdean erregistratuko dira (<https://www.sareberdeak.eus/eu/parte-hartu/>) eta zure helbide elektronikora web-orrira sartzeko gakoak helduko zaizkizu.

BALDINTZAK

1. Webgunearen bidez bakarrik onartuko dira erregistroak (<https://www.sareberdeak.eus/eu/parte-hartu/>).

Webgunearen bidezko erregistroa 2024ko azaroaren 20an ireki da, 00:01etan, eta 2024ko abenduaren 11an itxiko da 24:00etan.

2. Pertsona bakoitzeko erregistro bakarra onartuko da.
3. Helbide bereko erregistro bat baino gehiago jasotzen bada, sarien zozketan parte hartzea baliogabetuko da.

4. Sariak: Gabonetako 3 saski zozketatuko dira 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 11ra bitartean Sare Berdeak-en erregistratu direnen artean. Hauek dira sariak:

- a. 1.Saskia: Bisita gidatua MATER ontzi-museora, ingurumen-gaiei buruzko liburu-sorta, zeramikazko katilua, Arabako Errioxako olio-botila, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) oihal-poltsa, kantinplora, orri-markagailua, haziak, landa-gida bilduma, dibulgazio-liburuxkak.
- b. 2.Saskia: Bisita gidatua MATER ontzi-museora, ingurumen-gaiei buruzko liburu-sorta, “El mundo de Keu” liburua, kantinplora, zeramikazko katilua, libreta, orri-markagailua, hozkailurako imana, txorientzako egurrezko etxola, Undabaso proiektuaren kamiseta.
- c. 3.Saskia: Leioako Donibane Zentroko lorategira bisita, ingurumen-gaiei buruzko liburu-sorta, Arabako Errioxako olio-botila, “El mundo de Keu” liburua, garbitzaile kontzentratu biodegradagarria, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) oihal-poltsa, ur-botila, Undabasoko etorkizuneko basoan bost zuhaitz landatzeko aukera.

Irabazle bakoitza helbide elektronikoz jakinaraziko da. Gehienez 3 mezu bidaliko dira Sare Berdeak-en erregistratzeko erabili duzun emailera. 2024ko abenduaren 20a baino lehen erantzunik jasotzen ez bada, saria baliogabetuta geratuko da. Sariak aplikatu beharreko zerga-araubideari lotuta egongo dira, eta ezin izango dira trukatu.

5. Adin nagusikoek bakarrik jaso ahal izango dituzte sariak.
6. Ezin izango dute zozketan parte hartu GAPeko langileek ezta haien senideek.
7. GAPek, datu-tratamenduaren arduraduna den aldetik, jakinarazten dizu zure datuak zozketa hau antolatzeko eta kudeatzeko erabiltzen direla, parte hartzaileek oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz, bai eta irabazleen publizitatea eta irabazleei sariak ematea sustatzeko ere.

Sariduna izanez gero, zure identifikazio-datuak eta ateratako argazkiak arduradunak egokitzat jotzen dituen komunikabideetan argitaratu ahal izango dira, baita ekimena zabaltzeko bere webgunean ere.

Oinarrietan deskribatutako helburuekin datuen tratamendua onartzen ez bada, ezin izango da zozketan parte hartu.

Tratamendurako lege-oinarria parte-hartzailearen baimena eta zozketen baldintzak eta oinarriak onartzea da.

Datuak gorde egingo dira harremanak irauten duen bitartean eta datuak ezabatzea eskatzen ez den bitartean, eta, nolana ere, aplikatzekoak diren legezko preskripzio-epeak betez.

Irabazleei emaitza pertsonalki jakinarazteaz gain, irabazleak sare sozialetako profilen eta arduradunaren webgunearen bidez argitaratuko dira, baita egoki ikusten diren beste edozein hedabidetan ere. Era berean, saria zergak ordaindu behar izanez gero, Ogasun Publikoari lagatzea aurreikusten da.

Ez dago aurreikusita nazioarteko transferentziarik.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, lekualdatzeko eta mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak balia ditzakete, arduradunaren helbidera idatziz joz, “datuak babesteko eskubideak baliatzea” adieraziz, eta emandako baimena kentzeko eta kontrol agintaritzari (Datuak babesteko Agentzia www.aepd.es) erreklamazioa egiteko eskubidea dute.

- 8.** Zozketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak ezagutzea eta onartzea dakar.
- 9.** GAP-ek ez du inolako korrespondentziarik izan behar zozketa honen arauari eta baldintzei buruz. Zalantzazko kasu guztietarako, GAPeko zuzendaritza-batzordeak azken erabakia hartuko du.
- 10.** GAPek eskubide absolutua gordetzen du edozein erregistro edo parte-hartzaile deskalifikatzeko, zozketaren edozein arau gehitzeko edo aldatzeko, eta, ezinbesteko egoeretan, zozketa ezeztatu dezake.
- 11.** Datuak argitaratzerakoan, erratzeko aukera dago. Kasu horretan, datuak zuzendu eta berriro argitaratuko dira.

12.Sare Berdeak proiektuaren baldintzak eta edukia eta zozketaren arauak GAPen jabetzekoak dira.

